Herri-administrazioen politikak behar bezala garatzeko, aurrekontu espezifikoak eduki behar dira berdintasunaren arloko jarduerak bultzatzeko. Ildo horretatik, Berdintasunerako Legea (art.: 15) honako hau ezartzen du:

1. EAEko administrazio publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren aurrekontu publikoetan, bereziki haiek taxutzeko fasean, emakumeen eta gizonen premia diferenteak kontuan izateko eta berdintasuna sustatzen eta sexuan oinarritutako desberdinkeriak desagerrarazten laguntzeko. Horretarako, gidalerroak ezarri behar dituzte, eginkizun hori gauzatzeko, horri jarraipena egiteko eta ebaluatzeko, eta trebakuntza-prozesu egokiak abiarazteko.
2. Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak aktiboki eta progresiboki sustatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren % 1, gutxienez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzera bideratzea.

2022an, guztira,
126.182.888 euro
erabili dira
berdintasunerako.

Aurrekontu horren guztizkoaren % 73,6 Eusko Jaurlaritzako 12 sailei dagokie. Bestalde, udalen aurrekontua guztizkoaren % 7,8 izan da; erakunde autonomoek (% 6,6) eta Emakundek (% 6,1) ere ekarpen nabarmena egin dute aurrekontuan berdintasun-politikan. Foru-aldundiei dagokienez, berdintasunaren arloan gauzatutako aurrekontua guztizkoaren % 5,3 da.

7. grafikoa: EAEko berdintasun-alorrean gauzatutako aurrekontua, erakundearen arabera.
2022



Aurreko urteetako egoerarekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren zati handi bat Hezkuntza Sailari dagokio. 2022an, 82,7 milioi euro izan ditu guztira. Kopuru hori Eusko Jaurlaritzako sail guztiek identifikatu duten aurrekontuaren % 89,1 da, eta EAEko botere publikoek identifikatutako guztizko aurrekontuaren % 65,6.

Desberdintasunak daude berdintasuna bultzatzeko esleitu diren aurrekontuen eta azkenean gauzatu direnen artean:

- Emakunderi, foru-aldundiei, udalei, mankomunitateei eta koadrilei esleitutako aurrekontua azkenean gauzatutakoa baino handiagoa izan da.
- Gainerako erakundeen kasuan (Eusko Jaurlaritza, erakunde autonomoak, kapital publikoko enpresak eta beste erakunde batzuk), egoera alderantzikatu egiten da, kasu batzuetan erakundeek ez dutelako esleitutako aurrekontua identifikatu, baina azkenean exekutatu duten aurrekontu-kopurua bai.


Erakundeek **berdintasuneko aurrekontuei** buruz ematen duten informazioa mugatua da oraindik ere, eta ematen dituzten kopuruak gutxi gorabeherakoak baino ez dira. Erakundeek 2022an emandako datuen arabera, honako hau esan daiteke:

- Berdintasunaren arloan gauzatutako aurrekontu espezifikoak gauzatutako aurrekontu orokorraren %0,5 izan da, aurreko ekitaldian identifikatu zenaren erdia.
- Aurreko urteetan bezala, eta Emakunde kontuan hartu gabe, Eusko Jaurlaritzako sailek berdintasunaren arloko aurrekontu-portzentaje esanguratsuenak bideratzen dituzte. 2022an aurrekontu hori guztizkoaren % 1,1ekoa izan da (2021ean baino 0,8 puntu portzentual gutxiago).
- Beste kasu batzuetan, ehuneko hori % 0,5 (udalak) eta % 0,01 (kapital publikoko enpresak) artekoa da.

Berdintasunaren arloko aurrekontu espezifikoaren banakapenari dagokionez (5 esku-hartzetan), honako hau ikus daiteke:

- Aurrekontuaren zati handi bat, % 83,9 (86,8 milioi), **berdintasunaren arloko plan eta programetara** bideratu da. Esan beharra dago erakunde batzuek beren planetan sartzen dituztela ematen dituzten zerbitzuak, edo berdintasuneko langileak (bereziki udaletan); beraz, banakatzea ez da guztiz zehatza.
- Aurrekontu banakatuaren %6,8 (7 milioi) **berdintasuna bultzatzeko egitura eta zerbitzuetara** bideratu da (batez ere Emakunderen kasuan), eta %6,6 (6,8 milioi), berriz, berdintasun-unitateetako langileei.
- Guztizkoaren % 2,4 (2,4 milioi) **berdintasun-unitateek egindako jardueretarako** erabili da, eta, neurri txikiagoan (guztizkoaren % 0,2), banakatu ezin diren beste kontzeptu batzuetarako.

8. grafikoa: Aurrekontu banakatuak. 2022



Erakundeak beste aurrerapauso batzuk egiten ari dira **aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko**:

- Guztira, 29 erakundek (% 24,3) aurrekontuaren **eraginaren aurreko balorazioa** egin dute; gehienak Eusko Jaurlaritzako sailak izan dira.
- Hamalau erakundek (% 11,7) **prestakuntza** eman dute genero-ikuspegia txertatzeko, eta 10 erakundek (% 8,4) horretarako **talde espezifikoak** sortu dituzte.
- Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko **akordioak edo jarraibideak onartzeari** dagokionez, esan behar da 14 erakundek dituztela akordio horiek, eta 16, berriz, martxan daudela.

INFORMAZIO OSAGARRIA

a) Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea

13 taula: Berdintasunaren arloko aurrekontu orokorra eta espezifikoa. 2022

Informatzaileak	Orokorra, gauzatua	Berariaz berdintasunekoa	
		Esleitura	Gauzatua
Eusko Jaurlaritza	7.905.145.601	22.449.397	92.944.071
Emakunde	7.725.675	7.809.000	7.725.675
Foru Aldundiak	12.739.054.090	7.409.761	6.626.205
Udalak	1.737.218.767	43.911.121	9.903.283
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	97.948.694	613.759	416.681
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	1.715.872.732	763.986	8.407.966
Kapital publikoko enpresak	297.661.061	16.000	39.638
Beste erakunde batzuk	467.809.128	113.500	119.369
GUZTIRA	24.968.435.748	83.086.524	126.182.888¹⁴

14 taula: Gauzatu diren berdintasunaren arloko aurrekontuen xehakapena. 2022

Informatzaileak	Olanak eta programak (jarduketak...)	Berdintasun-unitateak		Egiturak eta zerbitzuak	Xehakatu ezin diren beste batzuk
		Langileak	Jarduketak		
Eusko Jaurlaritza	85.428.353	881.327	104.654	61.600	-
Emakunde	-	2.510.848	-	5.232.842	-
Udalak	1.163.154	2.934.149	2.135.753	1.766.030	103.697
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	163.826	281.485	78.023	-	37.766
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	28.242	248.767	159.402	-	78.299
Kapital publikoko enpresak	41.638	-	-	-	-
Beste erakunde batzuk	54.869	4.500	-	-	-
GUZTIRA	86.880.082	6.861.076	2.477.832	7.060.472	219.762

15 taula: Genero-ikuspegia aurrekontuetan sartzen egindako aurrerapausoak 2022

Informatzaileak	Aurrekontuaren eraginaren aurretiko balorazioa	Genero ikuspegia duten aurrekontu partzialak	Prestakuntza	Lantaldeak	Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko akordioak	
					Bai	Prozesuan
Eusko Jaurlaritza	9	49	5	2	4	1
Emakunde	1	1	-	-	-	-
Foru Aldundiak	3	129	1	2	3	-
Udalak	8	16	2	3	4	8
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	1	-	1	1	-	2
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	6	6	3	-	2	2
Kapital publikoko enpresak	1	-	1	-	1	1
Beste erakunde batzuk	-	-	1	2	-	2
GUZTIRA	29	201	14	10	14	16

¹⁴ Azalpen-oharra: berdintasunerako berariazko aurrekontua duten erakundeak bakarrik zenbatu dira.

2.5.- Arauen generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioak txertatzea euskal administrazioetan

Araudien generoaren araberako eraginaren alde aurreko ebaluazioen garrantziaren ondorioz, EAEk ahalegin handiak egin behar izan ditu horiek administrazio publikoetan ezar daitezen sustatzeko. Berdintasunerako Legeak, 19. artikuluan, arau guztiek emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez izan dezaketen eragina alde aurretik ebaluatzeko betebeharra ezartzen du. Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio horiek funtsezko tresna dira berdintasunerako politika publikoak ezartzeko. Administrazioen genero-zeharkakotasuna lortzeko zutabe nagusietako bat da.

Ebaluazio horien helburua da arauetan aurreikusitako jarduerak berdintasunaren ikuspegitik baloratzea; izan ere, araudiak batzuetan neutroa dirudien arren, sexuan oinarritutako desberdintasunak sortzen eta ugaltzen ditu.

Aurretiazko ebaluazio horien bidez, arauaren jardueretako batek edo batzuek berdintasuna lortzeaz bestelako ondorioak eragin ditzaketela balioesten bada, neurri zuzentzaileak proposatuko dira indarrean sartu aurretik.

Araudien genero-eraginaren ebaluazioak sistematizatu gabe daude oraindik EAEko erakundeen artean


EAEko administrazioen arauetan genero-ikuspegia txertatzeko bultzada erronka da gaur egun ere. Adibidez, 10 erakundek (parte hartzen duten erakunde guztien % 8,4) baino ez dituzte araudiaren genero-eragina ebaluatzeko **jarraibideak edo akordioak**, eta 4 onarpen-prozesuan daude.

- **Genero-eraginari buruzko txostenak** aurreko ekitaldikoek bikoitza izan dira. Hau da, informatutako arauen % 28,7k horrelako txostena egin du (2021ean % 14,1 izan zen). Hala ere, kontuan izan behar da arau guztiek ez dutela genero-eraginari buruzko txosten bat egiteko betebeharra.
- Foru-aldundiak dira horrelako txostenak egiteko modurik sistematizatuena duten erakundeak. Onartutako arau guztiei genero-eraginari buruzko txostena egin zaie..
- Egindako txostenen % 73,9k **berdintasun-neurriak** sartzea eragin du; gainerakoak (% 26,1), berriz, **neutroak** izan dira.

Zer neurri mota sartzen da arauetan berdintasuna lortzeko?

- **Genero-ikuspegia txertatzea da neurri ohikoena**, guztizkoaren % 26,9. Eusko Jaurlaritza (6) eta udalak (5) dira neurri hori gehien txertatu duten erakundeak.
- **Partaidetzaren sustapena**: (% 22,2), Eusko Jaurlaritza da neurri hori gehien txertatzen duen erakundea (6).
- **Ekintza positiboko neurriak eta debeku- eta zehapen-neurriak**, bakoitzak % 14,3.
- **Azkenik, gutxien erabili diren neurriak diskriminazio anizkoitza** duten emakumeentzako neurri espezifikoak (% 11,1) eta itxuraz neutroak diren neurriak (% 11,1) izan dira.

9. grafikoa: Eraginari buruzko txosten-kopurua, berdintasun-neurriak gehitzea eragin dutenen kopurua eta araua neutroa dela ezarri dutenen kopurua, erakundeen arabera. 2022



INFORMAZIO OSAGARRIA

a) Berdintasun-printzipioa araudian txertatzea

16 taula: Eraginari buruzko ebaluazioa egin zaien arauen kopurua eta ezaugarriak. 2022

Informatzaileak	Arau orokorren kopurua (legeak, dekretuak...)	Genero-inpaktuari buruzko txostenen kopurua	Arauren neutraltasuna ondorioztatu duten txostenak	Berdintasun neurriak ezartzea eragin duten txostenak
Eusko Jurlaritzak	327	20	7	7
Foru Aldundiak	486	486	90	278
Udalak	630	13	5	11
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	213	1	-	1
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	175	5	4	3
GUZTIRA	1.831	525	106	300

17 taula: Erakundeek arauetan berdintasuna lortzeko ezarri dituzten neurri motak 2022

Informatzaileak	Genero-ikuspegia	Partaidetza sustatzea	Ekintza positiboa	Inpaktu neutroak	Debekatzaileak eta zigortzaileak	Askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeentzat bereziki
Eusko Jurlaritzak	6	6	4	3	4	1
Foru Aldundiak	2	2	2	2	1	2
Udalak	5	3	1	1	3	3
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	1	-	1	-	-	-
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	3	3	1	1	1	-
GUZTIRA	17	14	9	7	9	7

18 taula: Genero-eraginari buruzko aurretiazko ebaluazioak eta jarraipena egiteko onartu diren gidalerroak, akordioak, etab. 2022

Informatzaileak	Ildo edo akordioak			Jarraipena dutenak
	Onartuak	Prozesuan	Ez	
Eusko Jurlaritzak (gidalerroak AG mailan)	5	-	6	3
Foru Aldundiak	2	-	-	1
Udalak	3	2	20	2
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	-	2	3	-
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	-	-	9	1
GUZTIRA	10	4	38	7

2.6.- Berdintasun-politiketan parte hartzea


Herritarrek bi modutan parte hartzen dute berdintasun-politiketan. Lehenengoa, berdintasunerako organo espezifiko bidez, non berdintasuna sustatzen lan egiten duten pertsonak edo erakundeek politika horien definizioan eta jarraipenean parte hartzen duten. Bigarrena, non gizarte zibileko erakundeak edo adituak sartzen diren, eta/edo berdintasun-eginkizunak eta -helburuak definituz berdintasunekoak ez diren herritarren partaidetzarako organoetan.

Herritarrek parte hartzeko 198 organo eta kontseiluetatik, %21,2 berdintasunekoak dira.

2022an, identifikatutako **parte hartzeko organo eta kontseiluen** profilak ezaugarri hauek ditu:

- % 21,2 (42) berdintasuna bultzatzen duten organo espezifikoak dira. Gehienak toki-erakundeetakoak dira (35). Neurri txikiagoan, foru-aldundiek (3), Eusko Jaurlaritzako sailek (2) eta Emakundek (1) ere badituzte egitura horiek.
- Gainerako organoak ez dira berdintasunekoak, eta gehienak udaletakoak dira. Organo horien artean, gehienek (% 31,9) berdintasun-eginkizun eta -helburuak dituzte; % 29,3k berdintasunaren arloan lan egiten duten erakundeak dituzte, eta % 24,8k ordezkari-orekatua dute. Organo horien % 13,9k gaian adituak diren pertsonen parte-hartzea izan dute.

10. grafikoa: Berriaz berdintasun-alorrekoak diren edota eginkizunetan nahiz osaeran genero ikuspegia jasotzen duten organoak eta kontseiluak 2022



INFORMAZIO OSAGARRIA

a) Kontsulta- eta partaidetza-organoetan genero-ikuspegia txertatzea

19. taula: Herritarren parte-hartzea berdintasun arloan. 2022

Informatzaileak	KONTSULTA ETA PARTAIDETZA ORGANOAK		BERARIAZ BERDINTASUNEZKOAK EZ DIRENAK ¹⁵			
	Guztira (berdintasuna edo berdintasunik ez)	Berariaz berdintasunekoa	Berdintasun eginkizun eta helburuekin	Berdintasunean diharduten entitateekin	Berdintasuneko adituen parte-hartzearekin (ez berariazkoak)	Ordezkaritza orekatua
Eusko Jaurlaritzia	58	2	4	2	4	16
Emakunde	1	1	-	-	-	-
Foru Aldundiak	14	3	3	2	3	-
Udalak	117	35	64	56	22	36
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	4	1	-	4	1	-
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	4	-	-	1	1	3
GUZTIRA	198	42	71	65	31	55

¹⁵ Organo berak hainbat eremu har ditzake, eta, horregatik, "Ez-espezifikoak" multzoaren batura handiagoa da identifikatutako guztizkoa baino.

2.7.- Berdintasunerako prestakuntza administrazio publikoetan

Berdintasunerako Legearen 18. artikulua jasotzen du beharrezkoa dela langile guztiak (teknikariak zein politikariak) berdintasunaren arloan gaitzea, beren jardueran genero-ikuspegia behar bezala txertatzen dela bermatzeko.


Horretarako, euskal botere publikoek kasuan kasuko prestakuntza-planak egin eta gauzatu beharko dituzte, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dauden lanpostu-tipologia bakoitzerako beharrezkoak diren eskumenak kontuan hartuta.

Halaber, kargu publikodunentzako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak egingo dira. Ildo horretan, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko programak sustatzea eta diseinatzea eta aholkularitza teknikoa ematea eginkizun duten plazak beteko dituzten teknikarien esperientzia eta/edo gaikuntza espezifikoak ere bermatu beharko da, eta gai horri buruzko ezagutza-baldintza espezifikoak ezarri beharko dira plaza horietara sartzeko.

Erakundeen % 26,0k
soilik adierazi du
berdintasunaren arloko
barne-prestakuntzako
planak dituela.


Zehazki, 9.512 pertsonak hartu dute parte prestakuntza-ekintza horietan (2021ean baino ia 5.000 pertsona gutxiagok). 10 parte-hartzailetik ia 8 emakumeak izan dira. Parte-hartze handiena erakunde autonomoetan izan da, batez ere Osakidetzan, pertsona horien erdiak baino gehiagok prestakuntza jaso baitute. Era berean, nabarmentzekoa da UPV/EHUn 2.200 pertsonak baino gehiagok parte hartu dutela.

11. grafikoa: Emakume eta gizonak EAEko administrazioek berdintasunaren arloan sustatutako prestakuntzan ¹⁶. 2022




¹⁶ Erakunde guztiek ez dute sexuaren arabera banakatzen parte-hartzea; beraz, guztizkoa ez dator bat banaketa horrekin.

12. grafikoa: Berdintasunerako barne-prestakuntza, erakunde-motaren arabera. 2022



Prestakuntza horietan parte hartu duten pertsonen lanbide-kategoriari dagokienez, gehienak teknikariak dira (% 65,0). Gainerako parte-hartzaileei dagokienez, hauek daude: administrariak (% 20,0), zuzendari-teknikariak (% 9,7) eta, neurri txikiagoan, arduradun politikoak (% 5,2).


13. grafikoa: Berdintasunean trebatu diren pertsonen banaketa, lanbide-kategorien arabera. 2022



Erakundeaz eta HAAEz kanpoko berdintasunaren arloko prestakuntzetan parte hartzen duten 10 lagunetatik ia 7 emakumeak dira

429 pertsonak hartu zuten parte prestakuntza horietan, eta % 68,4 emakumeak izan ziren. Udalek (guztizkoaren % 48,7) eta erakunde autonomoek (% 22,1) pertsona horietako gehienak prestatu dituzte. Prestakuntza horietan parte hartu duten lanbide-kategoriari dagokienez, ohi bezala, gehienak teknikariak dira (% 71,3) eta, neurri txikiagoan, zuzendaritzako langileak (% 15,4), administrazioako langileak (% 10,2) eta arduradun politikoak (% 3,1).

14. grafikoa: Emakumeak eta gizonak berdintasunari buruzko beste prestakuntza batean (ez barnekoa, ez HAEErena). 2022



INFORMAZIO OSAGARRIA

a) Prestakuntza-jardueretan genero-ikuspegia txertatzea

20. taula: Erakundeek sustatu duten berdintasunaren arloko barne-prestakuntza. 2022

Informatzaileak	Emakume partaideak	Gizon partaideak	Partaideak guztira ¹⁷
Eusko Jaurlaritza	225	56	440
Foru Aldundiak	117	55	172
Udalak	386	256	674
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	359	97	439
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	4.296	733	5.038
Kapital publikoko enpresak	185	216	401
Beste erakunde batzuk	1.882	427	2.348
GUZTIRA	7.450	1.840	9.512

21. taula: Berdintasunaren arloko barne-prestakuntzak izandako parte-hartzea, lanbide-kategorien arabera. 2022

Informatzaileak	EMAKUMEAK				GIZONAK			
	Admin.	Teknikaria	Zuzendaria	Ard. Polit.	Admin.	Teknikaria	Zuzendaria	Ard. Polt.
Eusko Jaurlaritza	38	91	11	15	4	37	6	3
Foru Aldundiak	79	48	9	-	21	12	3	-
Udalak	13	93	12	22	3	53	10	14
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	15	26	6	5	2	13	3	1
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	28	129	7	-	11	112	5	1
Kapital publikoko enpresak	34	126	26	-	6	180	28	1
Beste erakunde batzuk	8	1	1	5	-	1	-	1
GUZTIRA	215	514	72	47	47	408	55	21

22. taula: Berdintasunerako berariazko prestakuntzan parte hartzea, ez barnekoa, ez HAEKoa. 2022

Informatzaileak	BERDINTASUNA		
	Partaideak emakumeak	Partaideak gizonak	Partaidetza guztira
Eusko Jaurlaritza	36	9	45
Emakunde	17	7	24
Foru Aldundiak	8	1	9
Udalak	123	86	209
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	15	4	19
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	82	11	95
Kapital publikoko enpresak	11	17	28
GUZTIRA	292	135	429

¹⁷ Erakunde guztiek ez dute sexuaren arabera banakatzen parte-hartzea; beraz, guztizkoa ez dator bat banaketa horrekin.

23. taula: Parte-hartzearen banakapena berdintasunerako berariazko prestakuntzan (ez barnekoan, ez IVApekoan), kategorien arabera. 2022

Informatzaileak	EMAKUMEAK				GIZONAK			
	Admin.	Teknikaria	Zuzendaria	Ard. Polt.	Admin.	Teknikaria	Zuzendaria	Ard. Polit.
Eusko Jaurjaritza	10	25	1	-	2	7	-	-
Emakunde		11	5	-	-	4	3	-
Foru Aldundiak	-	6	2	-	-	1	-	-
Udalak	1	20	1	5	-	5	-	-
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	2	13	-	-	-	4	-	-
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	3	15	4	1	1	6	1	-
Kapital publikoko enpresak	1	10	12	-	-	12	1	-
Beste erakunde batzuk	-	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	17	100	25	6	3	39	5	-

2.8.- Berdintasun-klausulak sartzea administrazio publikoen kontratu, hitzarmen eta dirulaguntzetan

Berdintasunerako Legearen 22. artikulua botere publikoen kontratueta genero-ikuspegia txertatzea jasotzen du:

1. **Kontratazio publikoan irizpide sozialak txertatzea:** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko klausulak barne.
2. **Genero-ikuspegia ezaugarri tekniko gisa hartzea**
3. **Pertsona fisikoak eta juridikoak baztertzea:** Estatuko oinarritzko legeria betetzen ez dutenak, hala nola berdintasun-planik ez dutenak, edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arau-hauste larriengatik zehapen irmoak dituztenak, kontratazio-prozesuetatik kanpo geratuko dira.
4. **Gaitasun tekniko edo profesionalari buruzko betekizunak:** Kontratuak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ezagutza espezifikoak eskatzen baditu, arlo horretan esperientzia, ezagutza edo prestakuntza izatea eskatuko da, kaudimen tekniko edo profesionalari dagokionez.
5. **Kontratazio-pleguetan sartzea**
6. **Lizitazileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroa:** Sexuaren arabera banakatutako informazioa jaso daiteke, lizitazio-prozesuetan parte hartzen duten pertsonen edo enpresen kopuruari dagokionez, gutxienez.

2022an egindako kontratuen % 86,6k berdintasun-irizpideak sartu dituzte, aurreko urtean baino 2,8 puntu gutxiago

EAEko erakundeek egindako 4.414 **kontratuetatik**, % 86,6k **berdintasun-irizpideak** txertatu dituzte. Emakunde eta beste erakunde batzuk izan dira irizpide horiek osorik txertatu dituzten erakunde bakarrak, eta, aldi berean, Eusko Jaurlaritzak (% 95,5), Foru Aldundiek (% 94,1), erakunde autonomoek (% 90,4) eta kapital publikoko enpresek (% 90,1) nabarmen txertatu dituzte. Mankomunitateetan eta kuadrilletan (% 60,4) eta udaletan (% 46,3) ehunekoak txikiagoak dira.

Zer eremutan sartzen dira irizpide horiek?

- Gehienak, % 75,7, **exekuzio-baldintza berezietan** sartu dira.
- % 11,2 **esleipen-irizpideetan** sartu dira.
- Hain modu arruntean sartzen ez diren esparruak **objektua** (% 6,2), **espezifikazio teknikoak** (% 4,2) eta **kaudimen tekniko eta profesionala** (% 2,7) dira.

Dirulaguntza gehienek berdintasun-irizpideak jaso dituzte; hitzarmenetan eta beketan, berriz, ez da hain ohikoa izan

Hitzarmenen % 36,0k berdintasun-irizpideak sartu ditu (2021ean baino ia 16 puntu gehiago). Emakundek oso-osorik hartzen ditu, eta, bereziki, foru-aldundiek (% 87,1). Gainerako erakundeetan, berdintasun-irizpideak ez dira hain ohikoak izan; adibidez, mankomunitateen eta koadrilen hitzarmenen %40,0 edo Eusko Jaurlaritzaren hitzarmenen %34,6. Presentzia txikiagoa beste erakunde batzuetan (%25,0), udalen hitzarmenetan (%24,0), kapital publikoko enpresetan (%19,7) eta erakunde autonomoen hitzarmenetan (%5,3).


- **Zein esparrutan sartzen dira irizpide horiek?** Irizpide horiek batez ere egikaritze-baldintza berezietan (% 62,1) eta, neurri txikiagoan, xedean (% 37,4) sartu dira. Eta oso neurri txikian, beste eremu batzuetan (% 0,5).

2022an, nabarmen hazi da **diru-laguntzetan eta laguntzetan berdintasun-irizpideak txertatzeko** joera, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta % 80,5ra iritsi da (2021ean % 17,5ekoa izan zen). Emakundek eta foru-aldundiek berdintasun-irizpidea sartu dute diru-laguntza guztietan.

- **Zein esparrutan sartzen dira irizpide horiek?** Batez ere, **sartzeko betekizunei** dagokienez (% 40,8). % 17,9 **proiektuaren eta/edo jardueraren balorazioan** sartu dira, eta beste % 17,5 **balorazio-prozesuan**. Gutxiagotan agertzen dira **eskatzaileen balorazioan** (%11, %3), **egikaritze-baldintzetan** (%9,6) eta **xedean** (%3,0).

Azkenik, euskal erakundeek emandako beka guztietatik (137), %10,9k bakarrik sartu dituzte **berdintasun-irizpideak** (aurreko ekitaldian baino askoz gutxiago, %29,0).

15. grafikoa: Berdintasun-irizpideak txertatzea kontratuetan, diru-laguntzetan, hitzarmenetan eta beketan. 2022



Kontratu eta dirulaguntzetan berdintasun-irizpideak txertatzeko arau edo gidalerroen onarpena sistematizatu gabe dago oraindik euskal erakundeetan. Kontratuen kasuan, 15ek baino ez dituzte jarraibide horiek, eta 8 onartzeko bidean daude. Dirulaguntzen kasuan, oraindik ez da hain ohikoa, soilik 7 erakundek onartu dituzte jarraibide horiek, eta 4 prozesuan daude.

INFORMAZIO OSAGARRIA

Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea

24. taula: Berdintasun-irizpideak kontratuetan. 2022

Informatzaileak	Kontratu kopurua	Berdintasun irizpideekin	Irizpideak xedean	Irizpideak baldintza teknikoetan	Irizpideak kaudimen tekniko eta profesionalen	Esleipen-irizpideetan	Betearazpen-baldintza berezietan
Eusko Jaurlaritza	353	337	98	101	94	130	294
Emakunde	13	13	9	9	7	10	13
Foru Aldundiak	698	657	9	-	3	54	192
Udalak	460	213	16	49	13	115	141
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	48	29	2	15	2	22	13
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	2.396	2.167	28	3	0	25	2.302
Kapital publikoko enpresak	435	395	108	3	-	130	313
Beste erakunde batzuk	11	11	-	-	-	-	11
GUZTIRA	4.414	3.822	270	180	119	486	3.279

25. taula: Berdintasun-irizpideak hitzarmenetan. 2022

Informatzaileak	Hitzarmen kopurua	Berdintasun irizpideekin	Irizpideak xedean	Betearazpen-baldintza berezietan	Beste alor batzuetan
Eusko Jaurlaritza	214	74	29	63	-
Emakunde	3	3	3	-	-
Foru Aldundiak	218	190	5	14	-
Udalak	341	82	8	38	-
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	15	6	-	6	-
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	149	8	4	7	-
Kapital publikoko enpresak	147	29	28	-	1
Beste erakunde batzuk	4	1	-	-	-
GUZTIRA	1.091	393	77	128	1

26. taula: Berdintasun-irizpideak dirulaguntzetan eta laguntzetan 2022

Informatzaileak	Diru-laguntzen eta laguntzen kopurua	Berdintasun-irizpideekin	Irizpideak xedean	Irizpideak balorazio-prozesuetan	Sartzeko baldintzetan	Proiektu/jardueraren balorazioan	Eskatzaileen balorazioan	Betearazpen baldintzetan
Eusko Jaurlaritza	544	388	14	84	371	86	32	16
Emakunde	16	16	16	-	6	5	6	6
Foru Aldundiak	260	260	2	4	4	4	4	4
Udalak	351	264	17	94	177	93	33	19
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	14	9	-	-	-	-	3	5
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	149	138	0	109	119	109	109	109
Beste erakunde batzuk	1	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	1.335	1.075	49	291	677	297	187	159

27. taula: Berdintasun-irizpideak beketan. 2022

Informatzaileak	Bekak	Berdintasun-irizpideekin
Eusko Jaurlaritza	13	11
Emakunde	1	1
Udalak	93	3
Kapital publikoko enpresak	30	-
GUZTIRA	137	15

28. taula: Kontratazio-prozesuetan irizpideak aplikatzeko arauak eta gidalerroak onartzea. 2022

Informatzaileak	Kontratueta				Diru-laguntzetan			
	Onartu dute	Prozesuan	Jarraipen sist.	Zehapen mekanismoa	Onartu dute	Prozesuan	Jarraipen sist.	Zehapen mekanismoa
Eusko Jaurlaritza	2	1	1	1	-	1	-	-
Emakunde	1	-	-	-	-	-	-	-
Foru Aldundiak	2	1	-	1	3	-	-	1
Udalak	6	-	3	2	3	2	2	-
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	-	2	-	-	1	-	-	-
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	1	2	3	3	-	-	1	1
Kapital publikoko enpresak	3	-	3	2	-	-	-	-
Beste erakunde batzuk	-	2	1	2	-	1	1	1
GUZTIRA	15	8	11	11	7	4	4	3

2.9.- Berdintasunaren beste helburu garrantzitsu batzuen bilakaera gobernantzaren eremuan

Botere publikoek sustatutako politika eta jarduera guztietan genero-ikuspegia txertatzeko eskakizuna ezartzen du EAEn Berdintasunerako Legeak, 3.5 artikuluan: "EAEko botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, haietan guztietan ezar dadin desberdinkeriak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra. Lege honen ondorioetarako, hau da genero-ikuspegia txertatzea: sistematikoki kontuan izatea emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian diferenteak, eta, horretarako, desberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduera espezifikoak gehitzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horiek planifikatzeko, betearazteko eta ebaluatzeko fase guztietan".


Plan sektorialak eta zeharkakoak

66 plan sektorial onartu dira 2022an, eta horietatik % 36,4k soilik txertatu dituzte berdintasun-helburuak

Guztira, 66 plan sektorial onartu dituzte EAEko erakundeek 2022an, aurreko ekitaldian bezala. Plan horietatik:

- % 36,4k **berdintasun-helburuak** sartu ditu.
 - **Aurretiko diagnostikoa**: % 34,8k berdintasunaren arloko diagnostiko bat txertatu dute.
 - % 33,3k **berdintasunaren arloko ekintzak** sartu ditu.
- **Parte-hartzea**. Plan horien prestaketaren % 25,8an berdintasun-arduradunak parte hartu du, eta % 16,7an, berriz, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartu du, prozesu horietan genero-ikuspegia txertatzeko.
 - **Ebaluazioa**. Plan sektorialen % 24,2k adierazi du genero-adierazleak txertatzen dituela ebaluazioan.

16. grafikoa Genero-ikuspegiaren ezarpen-maila EAEko administrazio publikoen plangintzan. 2022



Koordinazio-egiturak


48 erakundek sail
arteko egiturak dituzte,
eta 28k, berriz, sail
barruko egiturak dituzte
berdintasuna
bultzatzeko

Sail arteko edo sail barruko koordinazio-egituren helburua da euskal erakundeei laguntzea berdintasuna zeharka bultzatzen. 2022an, honako hauek identifikatu dira:

- Berdintasun-politikak koordinatzeko **sailen arteko egiturak** dituzten 48 erakunde (gehienak udaletan). Guztira 306 bilera egin direla jakinarazi da, batez ere teknikarien eta politikarien artean (% 64,7). Gainerako bilerak teknikarien (% 24,5) edo politikarien (% 10,8) artean soilik egin dira.
- 28 erakundek dituzte **sail barruko egiturak** (batez ere, udalenak eta Eusko Jaurlaritzako sailenak). Guztira, 431 bilera egin dira, eta teknikariek eta politikariek parte hartu dute (% 46,6). Neurri txikiagoan, bilera horiek teknikariek (% 37,1) edo politikariek (% 16,2) soilik egin dituzte.
- Horrez gain, 44 informatzailek adierazi dute **beste egitura batzuk** dituztela berdintasunarekin lotutako gaiak koordinatzeko (aurreko ekitaldiko zifraren antzekoa).

Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloei dagokienez, 78 erakundek dituzte tresna horiek (aurreko urtean baino 21 gehiago). Erakunde guztiek, kapital publikoko enpresek eta beste erakunde batzuek izan ezik, lankidetzaz-ildo bat dute gutxienez, eta/edo berdintasun-arloko proiektu espezifikoak garatu dituzte nazioarteko edo beste herrialde batzuetako erakundeekin.

17. grafikoa: Sail arteko eta barruko egiturak eta 2022ean egindako bileren kopurua



Erakundeen arteko koordinazioari dagokionez (Emakundek eta foru-aldundiek parte hartzen dute eremu horretan), 15 bilera egin dira 2022an, ia guztiak teknikarien artean (14) eta bilera bakarra politikarien artean.

Estatistikak eta azterlanak

Berdintasunerako Legearen 17. artikulua azpimarratzen du EAEko erakundeek, egiten dituzten estatistika eta azterlanetan, genero-ikuspegia txertatu behar dutela, eta baldintza hori ezinbestekoa dela beren jardueran genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzeko.

Irizpide hori betetzea funtsezkoa da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen egoera eta bilakaera eremu guztietan ezagutzeko.

Estatistiketan eta azterlanetan berdintasunaren ikuspegia txertatzea oso urria da oraindik euskal erakundeen artean

Berdintasunerako Legeak estatistiketan eta azterketetan genero-ikuspegia sartzeko betebeharra ezartzen duen arren, oraindik urrun dago helburu hori lortzetik.

2022an, euskal erakundeetan oraindik ez da sistematizatu **estatistiketan eta azterketetan berdintasunaren ikuspegia sartzea**:

- Parte hartzen duten erakunde guztietatik, % 16,8k bakarrik dute **sexuaren aldagaia** modu sistematikoan, eta % 15,9k **ustiapen berezia** egiten dute estatistiketan eta azterketetan. Eusko Jaurlaritzako Sailek eta Emakundek alderdi horiek modu sistematikoan sartu ohi dituzte, baina gainerako erakundeetan oraindik ibilbide luzea dago egiteko.
- Beste gai batzuen sistematizazioa are txikiagoa da: adibidez, sexuaren aldagaia beste desberdintasun batzuekin gurutzatzea (% 10,9), genero-arrailek identifikatzea eta aztertzea (% 6,7) eta genero-adierazleak txertatzea (% 4,2).

Adierazi behar da 2022an **39 azterlan egin direla berdintasunaren arloan**.

Ordezkaritza orekatua


Administrazio publikoen helburua da emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatu baterantz aurrera egitea epaimahaiak, hautaketa-epaimahaiak eta pertsona anitzeko bestelako administrazio-organismoak eratzerakoan, eta, bestetik, kargu publikoak, sozietate publikoen administrazio-kontseilueta kideak eta EAEko sektore publikoa osatzen duten entitateen gobernu-organismoetako kideak izendatzerakoan (Berdintasunerako Legearen 3.10 artikulua).

Enplegu publikoa eskuratzeko, hornitzeko eta sustatzeko 10 epaimahaietatik 8k ordezkartza orekatua izan dute

2022an 613 epaimahai egin dira enplegu publikoa eskuratu, hornitu eta sustatzeko; horietatik % 81,5ek emakumeen eta gizonen osaera orekatua izan dute, eta % 78,8k, berriz, ordezkartza-klausula orekatuak.


Bestalde, sariak emateko edo kultura-funtsak eskuratzeko epaimahaiak gehienek (% 88,5) bi sexuen ordezkartza orekatua izan dute, eta % 73,9k ordezkartza orekatuko klausulak izan ditu.

18. grafikoa: Emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua epaimahaietan 2022



352 kide anitzeko **zuzendaritza-organoren** berri eman da. Zehazki, 10etik 7k emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua eskaintzen dute. Udalek emakumeen eta gizonen arteko oreka handiagoa dute organo horietan (% 88,2), eta, neurri txikiagoan, Eusko Jaurlaritzak (% 64,6) eta mankomunitateek eta koadrilek (% 63,6).

19. grafikoa: Ordezkaritza orekatua kide anitzeko organoetan 2022



INFORMAZIO OSAGARRIA

a) Genero-ikuspedia txertatzea plan sektorialetan eta zeharkakoetan

29. taula: Genero-ikuspedia plan sektorialetan eta zeharkako planetan sartzea. 2022

Informatzaileak	Onartutako planak	Berdintasun-diagnostikoa	Berdintasun helburuak	Berdintasun ekintzak	Partaidetza berdintasuna lantzen	Ebal./jarra. Partaidetza berdintasunean	Ebaluazioan genero-adierazleak
Eusko Jaurilaritza	31	9	10	10	4	-	3
Foru Aldundiak	9	1	1	1	1	1	1
Udalak	18	10	8	6	10	8	7
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	2	2	2	2	2	2	2
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	6	1	3	3	-	-	3
GUZTIRA	66	23	24	22	17	11	16

b) Berdintasunerako koordinazio-egiturak sortzea eta indartzea

30. taula: Sailen arteko koordinazio-egituren bilera kopurua. 2022 (berdintasuna)

Informatzaileak	Teknikariak soilik	Politikariak soilik	Teknikariak eta politikariak
Emakunde	4	1	-
Foru Aldundiak	5	4	-
Udalak	39	19	187
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	21	7	6
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	6	2	5
GUZTIRA	75	33	198

31. taula: Sail barruko koordinazio-egituren bilera kopurua. 2022 (berdintasuna)

Informatzaileak	Teknikariak soilik	Politikariak soilik	Teknikariak eta politikariak
Eusko Jaurilaritza	99	34	94
Foru Aldundiak	10	-	-
Udalak	39	36	107
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	12	-	-
GUZTIRA	160	70	201

32. taula: Koordinaziorako beste egitura batzuk, indarkeriari buruzko protokoloak eta nazioarteko lankidetzarako ildo egonkorak. 2022

Informatzaileak	Lotutako gaien koordinazioa	Indarkeriari buruzko protokoloa	Nazioarteko lankidetzak
Eusko Jaurlaritza	7	3	3
Emakunde	1	1	1
Foru Aldundiak	3	3	1
Udalak	21	47	6
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	2	6	1
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	6	9	2
Kapital publikoko enpresak	3	6	-
Beste erakunde batzuk	1	3	-
GUZTIRA	44	78	14

c) Estatistiketan eta azterlanetan genero-ikuspedia txertatzea

33. taula: Genero-ikuspedia azterlan eta estatistika sistematikoetan edo puntualetan txertatzea. 2022

Informatzaileak	Sexuaren aldagaia sartzea		Ustiaoen bereizia		Askotariko diskriminazioaren aurkako neurriak		Genero-etenaren antzerketa		Genero-erantzukizuna	
	Sist	Punt	Sist	Punt	Sist	Punt	Sist	Punt	Sist	Punt
Eusko Jaurlaritza	11	1	11	1	9	3	4	6	2	8
Emakunde	1	-	1	-	1	-	1	-	1	-
Foru Aldundiak	-	1	-	1	-	1	-	1	-	1
Udalak	3	1	2	2	1	3	-	3	1	1
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	4	2	4	2	2	3	2	4	1	3
Beste erakunde batzuk	1	-	1	-	-	-	1	-	-	1
GUZTIRA	20	5	19	6	13	10	8	14	5	14

34. taula: Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko azterlanak 2022

Informatzaileak	Azterlanak		
	Desberdintasunaren ezaugarriak, balioa eta pertzepzioa	Egoera sektoriala	Egoera kolektiboa
Eusko Jaurlaritza	2	4	-
Emakunde	-	1	1
Foru Aldundiak	4	2	2
Udalak	7	7	7
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	1	-	-
Beste erakunde batzuk	1	-	-
TOTAL	15	14	10

35. taula: Azterlan sektorialak, gaien arabera. 2022

Informatzaileak	Kooperazioa	Kultura, Euskara eta Kirola	Enplegua	Ekonomia	Hezkuntza	Osasuna eta kontsumoa	Habitata	Gizarte politikak	Segurtasuna eta justizia
Eusko Jaurlaritza	-	-	1	2	1	1	1	1	-
Foru Aldundiak	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Udalak	-	3	2	2	-	1	-	2	-
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	-	2	-	1	1	-	-	-	1
Beste erakunde batzuk	-	1	-	-	1	-	-	-	-
GUZTIRA	-	6	3	6	3	2	1	3	1

36. taula: kolektiboei edo emakume-taldee buruzko azterlanak. 2022

Informatzaileak	Gutxiengo etnikoa	Etorkinak	Desgaituak	Gazteak	Adinekoak	Errenta txikiak	Emakume homosexualak
Eusko Jaurlaritza	-	-	-	1	1	-	-
Emakunde					1		
Foru Aldundiak		-	-		-	-	-
Udalak	2	2	1	1	2	2	2
Beste erakunde batzuk	-	-	-	-	1	-	1
GUZTIRA	2	2	1	2	5	2	3

d) Berdintasunari buruzko edukiak sartzea enplegu publikoan sartzeko eta mailaz igotzeko hautaketa-prozesuetan

37. taula: Hautaketa prozesuen kopurua eta ezaugarriak. 2022

Informatzaileak	Hautaketa prozesuak guztira	Berariaz berdintasunera atxikita ez dauden prozesuak				
		Gaiari lotutako edukiak	Berdinketa hausteko klausularekin	Genero-ikuspegiarekin egindako oinarriak	Merituak edo prestakuntza baloratzen dituzte	Ez dituzte meritua edo prestakuntza baloratzen
Eusko Jaurlaritza	985	58	314	142	290	255
Foru Aldundiak	131	75	46	76	1	125
Udalak	155	53	43	37	38	29
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	7	6	6	-	-	-
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	495	269	449	433	321	175
Kapital publikoko enpresak	110	-	61	59	4	8
Beste erakunde batzuk	10	7	6	7	-	7
GUZTIRA	1.893	468	925	754	654	599

Informatzaileak	Berdintasuneko lanpostu teknikoak hartzen dituzten prozesuak	
	>150 orduko prestakuntza	150 orduko prestakuntzarik gabe
Eusko Jaurlaritza	29	-
Udalak	5	8
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	3	-
Beste erakunde batzuk	1	-
GUZTIRA	38	8

e) Epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatzea

38. taula: Enplegu publikoan sartzeko, mailaz igotzeko... epaimahaiak, sariak emateko epaimahaiak, etab. 2022

Informatzaileak	Enplegu publikoan sartzeko, sustatzeko... eta sariak emateko epaimahaiak			Enplegu publikoan sartzeko, sustatzeko... eta sariak emateko epaimahaiak		
	Guztira	Ordezkaritza orekatuarekin	Ordezkaritza klausulekin	Guztira	Ordezkaritza orekatuarekin	Ordezkaritza klausulekin
Eusko Jaurlaritza	187	146	164	55	48	38
Emakunde	-	-	-	1	-	-
Foru Aldundiak	37	33	21	-	-	-
Udalak	55	51	41	16	14	9
Mankomunitate eta partzuergoak ¹⁸	4	4	4	-	-	-
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	253	235	250	25	24	24
Kapital publikoko enpresak	74	28	-	-	-	-
Beste erakunde batzuk	3	3	3	-	-	-
GUZTIRA	613	500	483	97	86	71

39. taula: Ordezkaritza orekatua kide anitzeko organoetan. 2022

Informatzaileak	Kide anitzeko zuzendaritza-organoen kopurua	
	Guztira	Ordezkaritza orekatuarekin
Eusko Jaurlaritza	247	162
Emakunde	1	-
Foru Aldundiak	36	21
Udalak	34	30
Mankomunitate eta partzuergoak	11	7
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	16	9
Kapital publikoko enpresak	11	2
Beste erakunde batzuk	17	1
GUZTIRA	373	232

¹⁸ Bi mankomunitate eta koadrilek (Arabako Lautada eta Gorbeialdea) ez dute osatu duten epaimahai kopuru osoa sartu, baina ordezkaritza orekatua eta ordezkaritza orekatuko klausulak izan dituzten epaimahaien kopuruaren berri eman dute.

3.- ESKU-HARTZEAREN ARDATZETAKO JARRAIPENAREN EMAITZAK

3.1. Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jarduerak


Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko 745 jarduera egin dira, hau da, aurreko ekitaldian baino % 18,4 gehiago

2022an, erakundeek informatutako jarduketan kopuruak gora egin du aurreko ekitaldiarekin alderatuta¹⁹, neurri batean, erakunde informatzaileen partaidetza ere handiagoa izan baita.

Udalek (% 41,1) eta Eusko Jaurlaritzako sailek (% 32,1) egiten dituzte esku-hartze horietako gehienak.

Informatutako jardueren ia erdiak (% 49,5) jarraipena ematen die aurreko ekitaldian abian jarritako jarduerari, batez ere beste erakunde batzuen (% 72,7) eta Emakunderen (% 66,7) kasuan.

20. grafikoa: EAEn berdintasun-alorrean garatutako jarduketan kopurua, erakundearen arabera 2022



¹⁹ Emakunde sensibilizazio-lana egiten ari da jarduera horiek taldekatu ahal izateko eta erakundeek jarduera garrantzitsuenen berri bakarrik emateko. Hala ere, jarduera-kopuruaren gorabehera horiek erakundeek beren jardueraren berri emateko eta izaera bereko esku-hartzeen irakurketa bateratua erraztuko duten esku-hartze garrantzitsuenak aukeratzeko (adibidez, sensibilizazio-kanpainak) duten oreka zailari zor zaizkio.

40. taula: Aurreko urtekoen jarraipenak izandako jarduketan kopurua eta ehunekoa, erakunde motaren arabera. 2022

Informatzaileak	Aurreko urtekoen jarraipena (2020)	
	Kopurua	Gutizkoaren %
Eusko Jaurlaritzako Sailak	140	37,9
Emakunde	34	9,2
Foru Aldundiak	37	10,0
Udalak	115	31,2
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	17	4,6
Erakunde Autonomoak /Erakunde Publikoak	18	4,9
Beste erakunde batzuk	8	2,2
GUZTIRA	369	100,0

3.2. Esku-hartzeen helburu politikoak

Berdintasunaren aldeko kultura bultzatzea, hori baita jardueren helburu nagusia, baita emakumeak ahalduntzea eta sustatzea ere

Jardueren helburu nagusiak²⁰ bat datoz EAEko Berdintasunerako VII. Planak ezartzen dituen 3 ardatzekin:

- Emakumeen ahalduntzea
- Ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzea
- Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak sustatzea

Hala, 2022an, honako hauetan oinarritu dira jarduketak:

- Batez ere gizartean **berdintasunaren aldeko kultura** sustatzean (% 30,9) eta % 23,1 **emakumeen ahalduntzea eta sustapena bultzatzean**.
- Era berean, jarduketan % 18,5 **emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztera** bideratu dira.
- Azkenik, aurreko ekitaldietan bezala, **gobernantza eta erantzunkidetasuna hobetzearekin** lotutako helburuak ez dira hain ohikoak izan (% 11,4 eta % 4,1, hurrenez hurren).

21. grafikoa: Helburu politiko jakin bat lortu nahi duten jarduketan kopurua. 2022



²⁰ Adierazi behar da beti ez dela erraza izaten jarduera bati helburu bakarra esleitzea, eta, beraz, erakundeei eskatzen zaie, ahal den neurrian, jarduera horren helburu nagusia identifika dezatela.

Laburbilduz, jarraian aurkezten dira euskal erakundeek egindako jardueren helburuak:

- **Eusko Jaurlaritzako sailak:** jarduera-aniztasuna bat dator sail bakoitzaren eskumen-espezifikotasunarekin:
 - Aldeko kultura bultzatu du gizartean: ikerketak, jardunaldiak, kongresuak, sentsibilizazio-kanpainak egun seinalatueta, prestakuntzak, arreta-zerbitzuak, orientazioa eta aholkularitza, etab. garatu dira.
 - Gobernantza hobetzea: planetan berdintasunaren ikuspegia txertatzeko jarduerak, prestakuntzak antolatzea, etab.
 - Ahalduentzea: emakumeen ekintzailatza bultzatzeko dirulaguntzak martxan jartzea, emakumeen autonomia ekonomikoa sustatzeko jarduerak, lan-ikuskaritzako jarduerak (sexuagatiko diskriminazioa, amatasuna eta edoskitzea babesteko, sexu-jazarpenaren gaia eta protokoloak, etab.), emakumeak ikusarazteko kanpainak, etab.
 - Indarkeria desagerraraztea: zerbitzu espezifikoak bermatzea (GAKOA programa, ZEUK ESAN), laguntza juridikoa ematea, prestakuntzak antolatzea, hitzaldiak ematea, proiektuak diruz laguntzea, etxebizitzak zuzenean esleitzea, etab.
 - Erantzunkidetasuna: Haurreskolak finantzatzea, seme-alabak zaintzeko eta bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko planak egiteko langileak kontratatzeke laguntzak, etab.
- **Emakunde:** sentsibilizazio-kanpainak, dirulaguntzak, lankidetzak-hitzarmenak, sariak ematea, prestakuntza eta jardunaldiak antolatzea, ikerketak eta abian dauden programak antolatu ditu: Gizonduz, Nahiko, Beldur Barik, etab.
- **Foru Aldundiak:** udalerriek, irabazi-asmorik gabeko erakundeei eta feministen eta emakumeen elkartei laguntzeko ildoak eskaintzen dizkiete, tokiko eta lurraldeko berdintasuna bultzatzeko, kanpainak (8M eta 25N), prestakuntzak, hausnarketarako eta eztabaidarako guneak bultzatzea, lurralde- edo sektore-sareak (enpresak), lankidetzak-hitzarmenak, etab.
- **Udalak/Mankomunitateak/Koadrilak:** ahalduentze-eskolekin lotutako jarduerak edo berdintasunaren arloko gaiei buruzko ikastaroak/tailerrak, jai seguruak bultzatzeko jarduerak, data garrantzitsuetarako (8M, 17M, 25N, etab.) kanpaina eta jarduera espezifikoak, hezkidetzak-jarduerak, indarkeria matxistaren prebentziorako saioak, etab. antolatzen dituzte.
- **Erakunde autonomoak eta erakunde publikoak:** sentsibilizazio-jarduerak bultzatzen dituzte, berdintasunaren arloko prestakuntzak, ikastaroak eta jardunaldiak antolatzen dituzte, ikerketak, berdintasuna osasunean txertatzeko jarduerak, genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzioan txertatzeko jarduerak, etab.
- **Kapital publikoko enpresak:** emakumeek enpresetan duten zeregina ikusarazteko, bultzatzeko, kontziliazioari buruzko jarduerak bultzatzeko eta abarrerako jarduerak egiten dituzte.
- **Beste erakunde batzuk:** topaketak, ikastaroak, jarduerak egun seinalatueta, etab. antolatzea.

INFORMAZIO OSAGARRIA

41. taula: Helburu politiko zehatz bat duen ekintza kopurua, erakunde motaren arabera 2022

Informatzaileak	Eusko Jaurlaritza	Emakunde	Foru Aldundiak	Udalak	Mankomun. eta partzuer.	Erakunde autonomo eta publikoak	Kapital publikoko enpresak	Beste erakunde batzuk	Guztira
Indarkeria desagerraraztea	30	14	12	68	13	1	-	-	138
Erantzunkidetasuna	10	1	4	11	3	2	-	-	31
Emakumeak ahalduntzea/sustatzea	39	3	19	90	12	5	-	4	172
Aldeko kultura sustatzea gizartean	63	27	11	105	8	10	4	2	230
Ez da bat ere egokitzen	40	4	7	11	3	7	-	3	75
Gobernantza hobetzea	57	2	10	9	2	3	-	2	85
GUZTIRA	239	51	63	294	41	28	4	11	731

3.3. Berdintasun-ekintzen gaiak


Jardueren % 42,9ren gai nagusiak Hezkuntza eta Kultura, Euskara eta Kirolak dira

Hezkuntza eta Kultura, Euskara eta Kirolak dira 2022an erakundeek gehien bildutako bi gaiak. Bien artean, ekintza guztien % 42,9 biltzen dute. Gizarte-politika ere izan da gai nagusietako bat erakundeen artean (% 20,3).

Eusko Jaurlaritzak eta udalak dira jarduerak gehien egin dituzten erakundeak. Bi erakunde horiek ardatz hartu dituzten gaiak aztertuz gero, zenbait desberdintasun ikusiko ditugu, hala nola:

- Eusko Jaurlaritzaren kasuan, gai hauek izan dira ohikoenak: Osasuna eta Kontsumoa (% 31,2), batez ere Osasun Sailak informatutako jarduerak-kopuruagatik, eta, neurri txikiagoan, hiru eremu hauek: Gizarte Politika (% 15,3), Kultura, Euskara, Kirolak (% 14,8) eta Ekonomia (% 14,8).
- Udalei dagokienez, hauek dira gehien eskaintzen diren gaiak: Hezkuntza (% 35,0), Kultura, Euskara eta Kirolak (% 26,7) eta Gizarte Politika (% 25,7).

22. grafikoa: Gai jakin bat garatzen duten jardueren kopurua. 2022



INFORMAZIO OSAGARRIA

42. taula: Gai jakin bat garatzen duten jardueren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2022

Informatzaileak	Eusko Jaurlaritza	Emakunde	Foru Aldundiak	Udalak	Mankomunit. Partzuergoak	Erakunde Autonomoak eta Erakunde publikoak	Kapital publikoko enpresak	Beste erakunde batzuk	Guztira
Hezkuntza	19	3	7	72	10	-	-	2	113
Kultura, Euskara, Kirola	31	4	9	55	4	9	-	1	113
Enplegua	8	6	2	2	-	3	1	-	22
Ekonomia	31	6	3	7	1	2	-	4	54
Osasuna eta kontsumoa	65	1	-	4	1	7	-	-	78
Habitata	8	-	-	2	-	-	-	-	10
Gizarte politika	32	12	8	53	2	-	-	-	107
Lankidetzak	-	-	-	4	-	-	-	-	4
Segurtasuna eta Justizia	14	4	-	7	1	-	-	-	26
GUZTIRA	208	36	29	206	19	21	1	7	527

3.4. Esku-hartze mota

Jardueren % 22,8
berdintasunaren arloan
sentsibilizatzeko,
zabaltzeko eta
komunikatzeko dira

Botere publikoek berdintasunaren arloan egiten dituzten ekintzak 9 tipologiatan²¹ sailkatzen dira, eta horiek aztertzea eta garatzea ahalbidetzen dute. 2022an, esku-hartze mota²² aurreko ekitaldikoaren antzekoa da.

Ohikoenak **sentsibilizaziokoak, hedapenekoak eta komunikaziokoak** izaten jarraitzen dute (% 22,8), aurreko ekitaldikoak baino gutxiago (% 26,7). Gehienak udalek (% 46,3) eta Eusko Jaurlaritzako sailek (% 23,1) bultzatu dituzte.

Jarduera ekonomikoak: jarduera guztien % 18,2 mota horretakoak izan dira, eta gehienak udalek bultzatu dituzte (% 47,1), Eusko Jaurlaritzak % 20,2 eta foru-aldundiek % 15,5.

Jarduera guztien % 14,3 **herritarrak prestatzeko ekintzak** sustatzera bideratu dira. Ekintza horiek ohikoagoak izan dira udalen (% 62,2) eta mankomunitate eta koadrilen (% 13,2) artean.

Informazio-, ezagutza- eta analisi-ekintzak (% 11,9): ohikoagoak Eusko Jaurlaritzako Sailetan (% 44,4), Udaletan (% 23,8) eta Emakunden (% 7,9).

Unitate, erakunde eta organismo publiko eta pribatuen arteko koordinazioa eta ituntzea: ekintza guztien % 9,5; Udalek (% 47,5), Eusko Jaurlaritzak (% 28,7) eta Emakundek (% 9,9) bultzatutakoak nabarmentzen dira.

Azkenik, gutxien erabiltzen diren esku-hartzeak honako hauek dira: **zerbitzuen eta/edo ekipamenduen sorrera eta kudeaketa** (% 5,8), **esku-hartze erregulatzaileak** (% 5,4) eta **herritarren parte-hartzea eta kontsulta** (% 5,2).

²¹ Esku-hartze erregulatzaileak; Ekonomikoak; Herritarrei zuzendutako prestakuntza-ekintzak; Zerbitzu publikoetako profesionalentzako prestakuntza-ekintzak; Informazio-, ezagutza- eta analisi-ekintzak; Zerbitzuak, baliabideak eta/edo ekipamenduak sortzea eta kudeatzea; Herritarrek parte hartzeko eta kontsultatzeko esku-hartzeak; Unitateen, erakundeen eta erakunde publiko eta pribatuen arteko koordinazio- eta ituntze-esku-hartzeak.

²² Erakundeak beren esku-hartzeen lehentasunezko tipologia identifikatzen saiatu ohi dira, baina jarduera bat tipologia bati baino gehiagori egokitu dakiok. Tipologia bikoitz hori bereziki ohikoa da sentsibilizazio-, prestakuntza- edo koordinazio instituzionaleko ekintzetan, sarritan esku hartzeko bi alderdi baitituzte (adibidez, hedapen- eta informazio-ekintzak, prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak, koordinazio- eta prestakuntza-ekintzak, etab.).

23. grafikoa: Jarduketa-kopurua esku-hartze motaren arabera. 2022



INFORMAZIO OSAGARRIA

43. taula: Esku-hartze mota gisa formulatzen diren jarduketan kopurua, erakunde motaren arabera. 2022


Informatzaileak	Eusko Jaurjaritza	Emakunde	Foru Aldundiak	Udalak	Mankomun. eta partzuer.	Erakunde autonomo eta publikoak	Kapital publikoko enpresak	Beste erakunde batzuk	Guztira
Esku-hartze ekonomikoa	39	17	30	91	4	9	1	2	193
Esku-hartze arautzailea	21	6	7	14	-	2	2	5	57
Herritarren prestakuntza	16	7	8	94	20	3	-	3	151
Zerbitzu publikoetako langileentzako prestakuntza	32	3	7	21	3	4	1	1	72
Sentsibilizazioa, hedapena eta komunikazioa	56	9	26	112	17	16	1	5	242
Informazioa, ezagutza eta analisisa	56	10	8	30	10	9	-	3	126
Zerbitzu edota ekipamenduen sorrera eta kudeaketa	26	2	1	27	4	1	-	1	62
Herritarren partaidetza eta kontsulta	11	5	4	27	6	1	-	1	55
Unitateen, instituzioen eta erakunde publiko eta pribatuen arteko koordinazioa eta hitzarmenak lotzeko esku-hartzea	29	10	8	48	3	2	-	1	101

Formakuntza

45.600 parte-hartzaile baino gehiago herritarrei zuzendutako prestakuntza-jardueretan


Guztira, 45.618 pertsonen²³ hartu dute parte **herritarrei zuzendutako prestakuntza-saioetan**. Azken urteetako joerari jarraiki, emakumeen parte-hartzea nabarmen handiagoa da (% 60,9). Udalek eta foru-aldundiek hartzen dute parte jardueren horietan (% 41,0 eta % 31,3, hurrenez hurren).

24. grafikoa: EAEn berdintasunean trebatutako pertsonak (herritarrek), erakundearen arabera. 2022



Prestakuntza horien helburu nagusia da herritarrek berdintasunaren arloan duten ezagutza hobetzea. % 20k parte-hartzaileen jardueran berdintasun-printzipioak aplikatzen lagundu du. Neurri txikiagoan, enplegarritasuna hobetzea izan da helburua (% 7,0). % 8,2k bakarrik ziurtatzen edo egiaztatzen du prestakuntza egin duela.

25. grafikoa: Herritarrek trabatzeke ekintzen kopurua, helburuaren arabera. 2022




²³ Zehazki, sexuaren arabera 44.065 pertsonen parte-hartzea bereizi da (26.867 emakume eta 17.198 gizon).

Zerbitzu publikoetako profesionalentzako berdintasuneko prestakuntza-jardueretan izandako parte-hartzea egonkorra da 2021etik


Guztira, 12.655 pertsonak hartu dute parte zerbitzu publikoetako profesionalen (irakasleak, osasun-langileak...) zuzendutako **berdintasuneko prestakuntza-ekintzetan**, 2021 baino gehiago (436 gehiago). Jarduera mota horietan ere, emakumeek²⁴ gehiago parte hartzen dute: %61,6 emakumezkoak dira, %38,4 gizonezkoak. Eskaintza hori gehien sustatzen duten erakundeak Emakunde (% 55,1) eta Eusko Jaurlaritza (% 34,4) dira.

26. grafikoa: EAEn berdintasunean trebatutako langile publikoak, erakundearen arabera. 2022



Jarduera profesionalen aplikatzen laguntzea (% 55) eta berdintasunari buruzko ezagutza hobetzea (% 40) dira bi helburu ohikoenak. Prestakuntza horien % 21,9k bakarrik ematen dituzte ziurtagiriak edo akreditazioak parte-hartzearen ondoren.


27. grafikoa: Zerbitzu publikoentzako prestakuntza jarduketan kopurua, helburuaren arabera. 2022



²⁴ Parte hartu duten erakunde guztiek ez dute parte-hartzea sexuaren arabera banakatu. Banakapena datu horiek eman dituztenen arabera egiten da.

Lehen esan bezala, emakumeen parte-hartzea askoz ere handiagoa da berdintasunari buruzko prestakuntza-ekintza mota horietan, bai herritarrei zuzendutako ekintzetan, bai profesionali zuzendutako ekintzetan.

28. grafikoa: Herritarrentzako prestakuntzan eta administrazioetako langile publikoentzako prestakuntzan parte hartu dutenen kopurua, sexuaren arabera. 2022



INFORMAZIO OSAGARRIA

44. taula: Herritarrentzako prestakuntza-jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua, erakunde motaren eta sexuaren arabera. 2022

Informatzaileak	Emakume partaideak	Gizon partaideak	Partaideak guztira ²⁵
Eusko Jaurilaritza	2.245	2.224	5.099
Emakunde	1.919	2.422	4.341
Foru Aldundia	9.133	4.127	14.289
Udalak	11.312	7.424	18.709
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	2.191	984	3.095
Erakunde autonomo eta publikoak	28	13	42
Beste erakunde batzuk	39	4	43
GUZTIRA	26.867	17.198	45.618

45. taula: Prestakuntza-helburu zehatzak (herritarren prestakuntza) lortzeko antolatu den jarduketak-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2022

Informatzaileak	Berdintasunari buruzko ezagutza hobetzea	Lanbidearen jardueran aplikatzen laguntzea	Enplegarritasuna hobetzea	Ziurtagiria/akreditazioa barne
Eusko Jaurilaritza	7	3	1	-
Emakunde	7	4	1	2
Foru Aldundiak	2	-	1	-
Udalak	46	8	1	2
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	7	-	1	1
Erakunde autonomo eta publikoak	1	2	1	2
Beste erakunde batzuk	1	2	1	1
GUZTIRA	71	19	7	8

46. taula: Administrazioen zerbitzu publikoetako prestakuntza-jardueretan parte hartu duen pertsona-kopurua, erakunde motaren eta sexuaren arabera. 2022

Informatzaileak	Emakume partaideak	Gizon partaideak	Partaideak guztira ²⁶
Eusko Jaurilaritza	2.840	1.027	4.350
Emakunde	3.523	3.149	6.972
Foru Aldundiak	71	31	102
Udalak	721	246	967
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	28	13	41
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	6	5	149
Kapital publikoko enpresak	44	30	74
GUZTIRA	7.233	4.501	12.655

²⁵ Hainbat erakundek guztizkoak baino ez dituzte adierazi, horregatik, guztizko kopurua handiagoa da.

²⁶ Hainbat erakundek guztizkoak baino ez dituzte adierazi, horregatik, guztizko kopurua handiagoa da.

47. taula: Zerbitzu publikoei prestakuntza-helburuen inguruan eskaini zaien prestakuntza-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2022


Informatzaileak	Berdintasunari buruzko ezagutza hobetzea	Lanbidearen jardueran aplikatzen laguntzea	Enplegarritasuna hobetzea	Ziurtagiria/akreditazioa barne
Eusko Jurlaritzak	13	15	2	10
Emakunde	1	2	-	2
Foru Aldundiak	3	4	1	-
Udalak	8	15	-	1
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	1	1	-	-
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	3	3	1	3
GUZTIRA	29	40	4	16

Sentsibilizazioa

Nabarmen jaitsi da sentsibilizazio-, hedapen- eta komunikazio-jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua, batez ere emakumeen kasuan


Berdintasunaren aldeko sentsibilizazio-ekintzetan 22.521 lagunek hartu dute parte, eta 2021. urtearekin alderatuta, jaitsiera handia izan da (urte horretan 117.573 lagunek²⁷ hartu zuten parte). Parte-hartzeari buruzko datuak sexuaren arabera aztertzeari dagokionez, nabarmentzekoa da gehienak emakumeak²⁸ direla (% 65,6). Kasu honetan ere udalek (% 61,0) eta Emakundek (% 30,7) dute parte-hartze handiena.

29. grafikoa: Berdintasun-alarreko sentsibilizazio-ekintzetako partaideak, erakunde sustatzailearen arabera. 2022



Herritarren artean sentsibilizazioa sustatzeko 305 jarduera identifikatu dira. Zehazki, jardunaldiak, erakusketak, mahai-inguruak eta kontzertuak antolatzea (% 32,4); materialak sortzea eta banatzea (% 26,2); hedatze-kanpainak komunikabideetan (% 20,9); eta komunikazio instituzionalak eta/edo korporatiboak (% 20,3).

30. grafikoa: Sentsibilizazio-ekintzen kopurua, ekintza-motaren arabera. 2022



²⁷ HABEk (92.314 pertsona) 2021ean bultzatutako ekintza bati dagokio parte-hartze kopuru hori.

²⁸ Parte hartzen duten erakunde guztiek ez dute sexuaren arabera banakatzen parte-hartzea. Ehunekoa kalkulatzeko, datu horiek eman dituztenak hartu dira kontuan.

INFORMAZIO OSAGARRIA

48. taula: Sentsibilizazio-, hedapen- eta komunikazio-jardueretan parte hartu duen pertsona kopurua, erakunde motaren eta sexuaren arabera 2022

Informatzaileak	Emakume partaideak	Gizon partaideak	Partaideak guztira ²⁹
Eusko Jaurlaritza	68	32	783
Emakunde	3.675	3.247	6.922
Foru Aldundiak	117	6	203
Udalak	3.489	657	13.734
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	294	80	374
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	-	-	449
Beste erakunde batzuk	50	6	56
GUZTIRA	7.693	4.028	22.521

49. taula: Sentsibilizazio-jardueren kopurua, tipologiaren eta erakunde-motaren arabera 2022

Informatzaileak	Jardunaldiak, erakusketak, mahai-inguruak...	Materialak sortu eta zabaltzea	Hedatze-kanpaina hedabideetan	Komunikazio instituzionala/korporatiboa	Guztira erakundeko
Eusko Jaurlaritza	16	13	9	22	60
Emakunde	3	3	2	3	11
Foru Aldundiak	15	11	12	4	42
Udalak	53	40	33	22	148
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	10	4	4	2	20
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	1	6	3	8	18
Kapital publikoko enpresak	-	-	-	1	1
Beste erakunde batzuk	1	3	1	-	5
GUZTIRA	99	80	64	62	305

²⁹ Hainbat erakundek guztizkoak baino ez dituzte adierazi, horregatik, guztizko kopurua handiagoa da.


Informazioa, ezagutza eta analisia

126 informazio-, ezagutza- eta analisi-jardura 2022an, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunez buruz.

Berdintasunaren arloko politiken diseinuak gure gizartean etengabe aldatzen ari diren faktoreak eguneratzean oinarritu behar du. Horretarako, EAEko botere publikoek 126 esku-hartze egin dituzte, hau da, aurreko ekitaldian baino % 10,5 gehiago.


Esku-hartze horietako gehienak Eusko Jaurlaritzako sailek (% 44,4), udalek (% 23,8) eta, neurri txikiagoan, Emakundek eta mankomunitateek eta kuadrillak (bi kasuetan % 7,9) egin dituzte.

31. grafikoa: Informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. 2022



Erakundeek egindako informazio-, ezagutza- eta azterketa-jardura horien tipologia eta ezaugarriak askotarikoak dira. 2022an, diagnostikoak edo azterlanak egitea izan da ohikoena (% 26,5), baita datuak biltzea edo informazioa biltzeko sistema aldatzea (% 24,5) eta berdintasun-estrategiak eta -politikak hobetzeko proposamenak dituzten txostenak egitea ere (% 20,4).

32. grafikoa: informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketaren kopurua, oinarritzko edukiaren arabera. 2022.



INFORMAZIO OSAGARRIA

50. taula: jarduera zehatz batzuei buruzko informazio-, ezagutza- eta azterketa-jarduketaren kopurua, erakunde-motaren arabera 2022


Informatzaileak	Datuak biltzea eta informazioa biltzeko sistema aldatzea	Diagnostikoa edo azterketa	Proposamenen txostena prestatzea	Jarduteko barne jarraibideak berrikusi eta aldatzea	Ebaluazio txostena prestatzea	Guztira erakundeko
Eusko Jaurilaritza	12	13	9	8	7	49
Emakunde	2	3	2	-	2	9
Foru Aldundiak	2	2	4	3	1	12
Udalak	9	8	7	5	10	39
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	4	4	2	-	1	11
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	6	7	5	1	3	22
Beste erakunde batzuk	1	2	1	1	-	5
GUZTIRA	36	39	30	18	24	147

3.5. Zerbitzuak eta ekipamenduak sortzea eta kudeatzea

Baliabideak, zerbitzuak eta ekipamenduak sortzeko eta kudeatzeko jarduerak asko ugaritu dira

Udalak (% 43,5) eta Eusko Jaurlaritzako sailak (% 41,9) izan dira EAEn berdintasuna sustatzeko asmoz 62 zerbitzu eta ekipamendu sortzea eta kudeatzea sustatu duten erakunde nagusiak. 2021ari dagokionez, EAEko administrazioek garatutako jarduera-mota horietan % 37,8ko hazkunde esanguratsua nabari da.

33. grafikoa: Zerbitzuak eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko jarduketan kopurua, erakundearen arabera 2022




Zerbitzu eta ekipamendu horien helburuak askotarikoak dira. 2022an, helburu nagusia izan da emakumeen ahalduntzeari laguntzea (% 32,4), baita emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei eta haien seme-alabei laguntzeko zerbitzuak (% 28,2) eta zaintza-arloko informazioa, dokumentazioa eta aholkularitza emateko zerbitzuak eta ekipamenduak ere (% 28,2). Proportzio txikiagoan garatu dira zainketen erantzunkizun sozialeko zerbitzuak/ekipamenduak (% 9,8).

Bestalde, 20 baliabide, zerbitzu edo ekipamendu berri sortu dira, gehienak Eusko Jaurlaritzako sailenak (%11, %55,0) eta udalenak (%8, %40,0), eta kasu batean erakunde autonomo batek sortu du baliabidea. Era berean, 36 jarduera aurretik dauden baliabideen kudeaketan eta/edo aldaketan oinarritu dira (horietatik 19 Eusko Jaurlaritzako sailetakoa eta beste 13 udaletakoa)³⁰.

³⁰ Gainerako baliabideak hauek dira: 1 Emakunde, 1 Foru Aldundiak, 1 Mankomunitateak eta Koadrilak eta 1 beste erakundeak.

34. grafikoa: Zerbitzu eta baliabideak sortu, , kudeatu eta aldatzeko jarduketaren kopurua. 2022



Azkenik, aipatu behar da zerbitzu horien % 66,1ek berdintasunaren arloan espezializatutako langileak dituela, batez ere udalek (22) eta Eusko Jaurlaritzak (13) kudeatutako zerbitzuetan. Era berean, zerbitzu horien % 30,6k diagnostiko bat egin du emakumeen eta gizonen desberdintasunak eta premiak identifikatzeko.

INFORMAZIO OSAGARRIA

51. taula: Zerbitzuak eta ekipamenduak sortzeko eta kudeatzeko jarduketaren kopurua eta ezaugarriak, erakundearen arabera. 2022

Informatzaileak	Dagoen zerbitzua, baliabidea edo ekipamendua kudeatu edo aldatzea ...	Baliabide, zerbitzu edo ekipamendu berria sortzea	Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen eta beharren diagnostikoa egin da	Zerbitzuan berdintasun-alorreko langile espezializatuak daude	Guztira erakundeko
Eusko Jaurlaritza	19	11	5	13	48
Emakunde	1	-	-	1	2
Foru Aldundiak	1	-	1	1	3
Udalak	13	8	10	22	53
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	1	-	1	2	4
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	-	1	1	1	3
Beste erakunde batzuk	1	-	1	1	3
GUZTIRA	36	20	19	41	116

52. taula: Zerbitzua, baliabidea edo ekipamendua, erakunde motaren arabera. 2022


Informatzaileak	Informazioa, aholkularitza...	Ahalduntzeari laguntza	Biztanleen erantzunkidetasuna	Arreta genero-indarkeria izan dutenei	Guztira erakundeko
Eusko Jaurlaritza	4	9	2	6	21
Emakunde	2	1	1	-	4
Foru Aldundiak	1	-	-	1	2
Udalak	7	12	2	11	32
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	4	1	1	2	8
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	1	-	1	-	2
Beste erakunde batzuk	1	-	-	-	2
TOTAL	20	23	7	20	71

3.6. Berdintasun-ekintzen erakunde eta pertsona onuradunekiko hurbilketa

Gazteak eta emakumeak: botere publikoek bultzatutako ekintzen hartzaile nagusiak

Euskal gizarte osoan berdintasuna bultzatzeko 2022an identifikatutako 299 jarduketetatik gehienak (% 65,9) emakumeei zuzendu zaizkie. Hala ere, gizonei zuzendutako jarduerak zertxobait igo dira aurreko urtearekin alderatuta (% 18,6tik % 21,0ra), eta beste erakunde batzuei zuzendutakoak, berriz, jaitsi egin dira (% 16,1etik % 13,0ra).


35. grafikoa: Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, sexuaren arabera 2022



Esku-hartze horiek hainbat eremuri atxikita daude, baina ohikoenak administrazio publikoei zuzendutakoak dira (guztizkoaren % 29,7), ondoren eremu zibila (% 21,5) eta eremu pertsonala edo familia (% 19,4).

Jarduera horiek zein talderi zuzentzen zaizkien zehatzago aztertuz gero, esan daiteke jarduera guztien % 22,6 gazteei, pertsona migratzaileei (% 14,6) eta adinekoei (% 13,1) zuzenduta dagoela. Bestalde, % 17,6 "Beste kolektibo batzuei" eskaini zaizkie. Talde horietan oso espezifikoak daude (prostituzioa, LGTBI, osasun-arazoak, mendekotasunak edo genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak).


36. grafikoa: Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, beste aldagai batzuen arabera.



Administrazioek sustatzen dituzten esku-hartzeen helburua emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murriztea edo ezabatzea da, baina askotan beste faktore batzuk ere jorratzen dituzte, hala nola adina, gizarte-klasea, desgaitasuna, sexu-aukerak, etnia edo arraza, etab. Hala, jardueren ia % 59k adinaren, sexu-aukeraren eta gizarte-klasearen aldagaiak sartu dituzte beren esku-hartzeetan desberdintasunaren sorburu gisa.

Etnia eta/edo arraza edo desgaitasuna bezalako beste gai batzuk ere desberdintasun-sorburu gisa tratatu dituzte udalek, batez ere.

37. grafikoa: Bestelako desberdinkeriei aurre egiteko ekintzen kopurua. 2022.



INFORMAZIO OSAGARRIA

53. taula: Jarduketa-kopurua, hartzaileen eta erakunde-motaren arabera. 2022

Informatzaileak	Merkataritza-arloa	Pertsonala edota familiakoa	Arlo zibila	Administrazioak	Beste arlo batzuk	Guztira erakundeko
Eusko Jurlaritzak	26	27	29	80	62	224
Emakunde	16	10	27	24	6	83
Foru Aldundiak	3	2	11	13	2	31
Udalak	4	59	45	24	18	150
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	-	6	-	6	1	13
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	6	-	1	12	11	30
Kapital publikoko enpresak	1	-	2	-	1	4
GUZTIRA	56	104	115	159	101	535

54. taula: Gizonentzat, emakumeentzat eta beste identitate batzuentzat berariaz antolatutako jarduketa-kopurua, erakunde motaren arabera. 2022

Informatzaileak	Emakumeak	Gizonak	Beste identitateak	Guztira erakundeko
Eusko Jurlaritzak	44	8	2	54
Emakunde	18	10	1	29
Foru Aldundiak	13	1	-	14
Udalak	94	38	33	165
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	17	4	3	24
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	6	1	-	7
Kapital publikoko enpresak	1	1	-	2
Beste erakunde batzuk	4	-	-	4
GUZTIRA	197	63	39	299

55. taula: Kolektibo zehatzetan oinarritutako jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2022

Informatzaileak	Gutxiengo etnikoak	Etorkinak	Desgaitasun pertsonak	Gazteak	Adinekoak	Errenta txikiak	Pert. Homosexualak	Beste batzuk	Guztira erakundeko
Eusko Jurlaritzak	2	8	1	10	1	2	2	42	68
Emakunde	4	4	2	6	7	3	1	4	31
Foru Aldundiak	2	3	2	9	2	-	3	-	21
Udalak	18	30	21	48	30	19	25	10	201
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	-	4	-	2	4	-	-	2	12
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	-	-	-	1	-	-	-	1	2
Beste erakunde batzuk	-	-	-	-	-	-	-	1	1
GUZTIRA	26	49	26	76	44	24	31	60	336

56. taula: Berdintasunaren arloko beste helburu batzuei (ez soilik emakumeei eta gizonei) lotutako jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2022

Informatzaileak	Adina	Gizarte-klasea	Sexu- aukera	Desgaitasuna	Etnia/ arraza	Nazio jatorria	Guztira erakundeko
Eusko Jurlaritzak	4	4	7	1	5	2	23
Emakunde	7	5	4	3	5	3	27
Foru Aldundiak	3	-	2	1	2	1	9
Udalak	50	41	51	34	40	31	247
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	7	6	1	2	2	3	21
Otras instituciones y entidades	1	-	-	-	-	-	1
GUZTIRA	72	56	65	41	54	40	328

3.7. Ekintzetan egokitze-neurriak erabiltzea


Egokitze-neurriak gutxi erabiltzen dira, oraindik ere, behar duten kolektiboentzat.

Hala behar duten pertsonen parte-hartzea errazteko egokitze-neurriak hartzea (gorrentzako itzulpena; espazio presentzial edo birtualetarako irisgarritasun fisikoa nahiz komunikatiboa, migratzaileentzako beste hizkuntza batzuetara itzultzea, etab.). jarduera gehienetan kontuan hartu gabe jarraitzen du.

Guztira 81 esku-hartzek txertatu dituzte neurri horiek, aurreko ekitaldian baino zertxobait gehiago (orduan 49 esku-hartzek txertatu zituzten neurri horiek).

Udalak, Emakunde eta Foru Aldundiak dira neurri horiek gehien txertatzen dituzten erakundeak.

38. grafikoa: Egokitzapen-neurriak dituzten ekintzen kopurua. 2022



INFORMAZIO OSAGARRIA

57. taula: Hainbat kolektiboren ezaugarrietara egokitzeko neurriak ezarri dituen jarduketa-kopurua, erakunde motaren arabera. 2022

Informatzaileak	Desgaitasuna duten pertsonei egokitzea	Etorkinei egokitzea	Beste talde batzuei egokitzea	Guztira erakundeko
Eusko Jurlaritzak	3	3	1	7
Emakunde	7	3	2	12
Foru Aldundiak	6	4	3	13
Udalak	17	22	-	39
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	5	4	1	10
GUZTIRA	38	36	7	81

3.8. Esku-hartzeen kostua

125,2 milioi euro
berdintasuna
bultzatzeko.
Erantzunkidetasuna
89,5 milioi eurokoa
izan da

EAEn emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jardueren kostua 125.264.600 eurokoa izan da, hau da, 2021ean baino %5,7 handiagoa (118.465.818 euro).

Joera hori goranzkoa da azken urteetan. Ohikoa denez, kostu osoaren % 91,3 Eusko Jaurlaritzako sailei dagokie.

Jarduketan kostuei dagokienez, erakundeek lortu nahi duten helburuaren arabera, honako hau adierazi behar da:

- **Zainketen erantzunkidetasuna bultzatzeko**, erakundeek 89,5 milioi bideratu dituzte guztira, hau da, kostu osoaren % 71,5. Eusko Jaurlaritzak (89,2 milioi) eta, bereziki, Hezkuntza Sailak sustatu dituzte jarduera horiek. Foru-aldundiek 196.769 euro bideratu dituzte helburu hori lortzeko.
- Bederatzi milioi **emakumeenganako indarkeria desagerrarazteko** bideratu dira, aurreko ekitaldian baino 2 milioi gehiago. Eusko Jaurlaritzako sailek 5,7 milioi bideratu dituzte helburu hori lortzera; udalek eta foru-aldundiek, berriz, 1,2 milioi jarri dituzte bakoitzak bere baliabide ekonomikoetatik. Arlo horretan jarduera ugari identifikatu dira: laguntza juridikoa eta psikologikoa, laguntza ekonomikoak, sentsibilizazio jarduerak, prestakuntza, errehabilitazio programak, etab.
- 7,4 milioi bideratu dira **gizartean balio-aldaketa bultzatzeko**. Eusko Jaurlaritzak (4,3 milioi) eta Emakundek (1,4 milioi inguru) arlo honetan nabarmentzen dute.
- **Emakumeen ahalduntzea eta sustapena bultzatzeko** jarduerak 5,7 milioi euro izan dituzte. Jarduera horiek Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek (3,5 milioi) eta foru-aldundiek (1,4 milioi) egin dituzte. Udalek ere aurrekontu esanguratsua bideratu dute horretarako (708.832 €). Helburu hori lortzeko esku-hartzeak emakumeen enplegua sustatzera bideratu dira nagusiki.
- Bestalde, **gobernantza hobetzeko** jarduerak 1,3 milioiko kostua izan dute, eta, batez ere, Emakundek (506.431 €), Eusko Jaurlaritzako sailek (469.730 €) eta foru-aldundiek (256.324 €) sustatu dituzte, eta, neurri txikiagoan, udalek, erakunde autonomoek eta beste erakunde batzuek.

Horrela, informatutako jarduera guztietatik, %58,4k kostua izan dute, aurreko ekitaldietakoen oso antzekoa. Erakundeetako langileek berek bultzatutako beste jarduera batzuek ez dute kostua barne hartu.


39. grafikoa: EAEn berdintasun-alorrean jorratutako jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. Jarduketa guztiak eta kostua identifikatuta dutenak. 2022



Laburbilduz, hona hemen kostua duten esku-hartzeak:

- Foru-aldundien kasuan, informatutako jarduera guztien % 95,2k 5 milioi euroko kostua izan dute.
- Emakunderen jardueren% 74,5 2,5 milioi eurokoak dira.
- Udaletan, jardueren% 60,1ek 2,7 milioiko kostua izan du.
- Erakunde autonomoek jakinarazitako jardueren erdiek 405.752 €-ko zenbatekoa izan dute.
- Mankomunitateen eta koadrilen jarduera guztien% 36,6k kostua izan du (115.564€).
- Kapital publikoko enpresek eta beste erakunde batzuek 4.330 €-ko kostua izan dute lehen kasuan, eta 53.686 €-koa bigarreanean. Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren kostua duten 117 jarduerak 114,3 milioi eurora iritsi dira.

40. grafikoa: Jakinarazitako jarduketaren kostu osoa, erakundearen arabera (milakoetan). 2022



INFORMAZIO OSAGARRIA

58. taula: Kostuarekin informatutako jarduerak, erakunde-motaren arabera. 2022

Informatzaileak	Guztira
Eusko Jaurlaritza	117
Emakunde	38
Foru Aldundiak	60
Udalak	184
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	15
Erakunde Autonomoak/ Erakunde Publikoak	15
Kapital publikoko enpresak	2
Beste erakunde batzuk	4
GUZTIRA	435

59. taula: Informatutako jardueren kostua, erakunde-motaren arabera.. 2022

Informatzaileak	Guztira	Ehunekoak
Eusko Jaurlaritza	114.383.537	91,3
Emakunde	2.517.468	2,0
Foru Aldundiak	5.059.562	4,0
Udalak	2.724.701	2,2
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	115.564	0,1
Erakunde Autonomoak/ Erakunde Publikoak	405.752	0,3
Kapital publikoko enpresak	4.330	0,0
Beste erakunde batzuk	53.686	0,0
GUZTIRA	125.264.600	100,0

60. taula: Jarduketan kostua, esku-hartzearen helburuaren eta erakunde motaren arabera. 2022

Informatzaileak	HELBURUAK					
	Indarkeria desagerraraztea	Erantzukidetasuna	Ahalduntzea/sustatzea	Aldeko kultura sustatzea	Gobernantza hobetzea	Ez da bat ere egokitzen
Eusko Jaurlaritza	5.738.609	89.270.034	3.543.893	4.378.752	469.730	10.711.169
Emakunde	511.457	6.000	4.939	1.395.371	506.431	93.270
Foru Aldundiak	1.282.201	196.769	1.420.513	1.137.557	256.324	682.198
Udalak	1.237.605	63.085	708.834	465.786	33.528	208.677
Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak	7.374	2.500	80.590	3.000	-	22.100
Erakunde Autonomoak/ Erakunde Publikoak	308.488	13.045	-	60.618	23.601	-
Kapital publikoko enpresak	-	-	-	3.050	-	1.280
Beste erakunde batzuk	-	-	20.000	2.287	16.399	15.000
GUZTIRA	9.085.734	89.551.433	5.778.769	7.446.421	1.306.013	11.732.414

Oharra: taula honen batura ez dator bat aurreko taulako aurrekontuarekin, aurrekontu batzuk ez baitaude helburuen arabera banakatuta